



## Baldintzapean aske geratu da Maite Pedrosa euskal preso politikoa

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 04/04/2025

Orain arte 27 urte preso eman ditu eta iazko otsailetik hirugarren graduan zegoen.

Maite Pedrosa Barrenetxea euskal preso politikoa baldintzapeko askatasunean geratu da ostegun honetan, Espetxe Zaintzako Epaille Zentralaren ebazpenaren bidez. Pedrosa 1998an atxilotu zuten eta inkomunikazio aldian Guardia Zibilaren eskuetan sexu tortura latzak jasan zituela salatu zuen. Ondoren, ETaren 'Andaluzia komando'ko kide izateko akusaziopean zigortu zuten eta 230 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Besteak beste, Almerian eta Granadan egon zen preso, eta zigorraren zati handi bat Picassenten (Herrialde Katalanak, 600 kilometro) bete zuen. Hain zuzen, 2020ko azaroan lekualdatu zuten handik Zuerako espetxera (Zaragoza, 245 kilometro). Orduan aldatu zuten lehen gradutik bigarrenera ere. 2024ko otsailean hirugarren gradua onartu zioten Maite Pedrosari eta 2024ko ekainetik baliabide telematikoen bidez bete ahal izan du bere zigorra, orain baldintzapean aske geratu da.

---

<https://eh.lahaine.org/baldintzapean-aske-geratu-da-maite>